



4. PROTOKOLOA

(Azken eguneraketa: 2020/03/03)

ETXEKO GARBIKETA, ETXEKO ISOLAMENDUAN DAUDEN COVID-2019 KASU BAIEZTATUETAN

Ahal bada, gaixoak egingo du, eta, bestela, zaintzen duen pertsonak:

- Egunero garbitu gelako gainazal guztiak, hala nola mahaia, ateen tiradoreak, bainugelako osagarriak, komuna, telefonoa, ordenagailuen teklatuak, tabletak, mugikorra, etab.
- Garbiketa zaintzaileak egiten badu, maskara, bata eta erabili eta botatzeko eskularruak erabili beharko ditu.
- Desinfekzioa egiteko erabili lixiba edo sodio hipokloritoa duen disoluzio bat, 1000 ppmtako kloro aktiboa duena. Gomendatutako kontzentrazioak lortzeko merkatuko lixibak erabilita:
 - 50g/L-tako merkatuko lixiba: 25 mL lixiba gehitu 1 litro uretan.
 - 40g/L-tako merkatuko lixiba: 30 mL lixiba gehitu 1 litro uretan.

Adibide moduan, “zopa koilara” bat 15 mL-ren baliokidea da.

Lixiba erabili ezin den gainazaletan etanola erabiliko da % 70ean.

- (berriki prestatutako 1:50 diluzioa, 40-50g/L-ko kontzentrazioa duen lixiba erabiliz).
- Garbiketa amaitzean, **gela barruan**, ordena honi jarraituz:
 1. Eskularruak kendu
 2. Bata kendu
 3. Maskara kendu
 4. Eskuak garbitu, 1.irudian zehaztutakoaren arabera.
- Zaborra kentzean, lehenengo poltsa batean sartu. Ondoren, garbi dagoen bigarren poltsa baten barruan sartu. Poltsa gaixoaren gelan utziko da, gainerako zaborrarekin bota arte.
- Horren ostean, eta berehala, garbitu eskuak berriro.
- Ez arrastatu arropa edo zabor-poltsak lurretik.

- Gaixoaren gela ondo aireztatuta mantendu, baina beti atea itxita.
- Gaixoa ospitalera eramaten badute, logela aireztatu ordubetez, atea itxita dagoela. Inor ez dadila sartu gela horretan azken garbiketa egin arte.

Oheko arropak, eskuoihalak, gaixoaren arropa:

- Ahal bada, gaixoak poltsa batean jasoko du garbitu behar den arropa.
- Arropa zaintzaileak jasotzen badu, logela barruan egingo du, eta maskara, bata eta erabili eta botatzeko eskularruak erabili beharko ditu.
- Poltsa logelatik atera baino lehen, garbi dagoen bigarren poltsa batean sartuko du. Poltsa horiek behin erabili eta gero, pazientearen gainerako hondakinekin batera bota.
- Ez astindu arropa poltsatik ateratzean, eta sartu berehala garbigailuan. Kontuz ibili eta, ahal bada, hustu poltsa barruan.
- Eskuak garbitu eta garbigailua martxan jarri. Erabili ur beroko programa bat (60-90°C).
- Gaixoaren arropak etxeko gainerako arroparengandik bereizita garbitu.

Pazientearen baxera:

- Ontzi-garbigailua izanez gero, familiako gainerakoekin garbitu daiteke, 50-60 gradutik gorako tenperaturan.
- Ontzi-garbigailurik ez baduzu, garbitu lehenik familiaren ontziteria, eta, azkenik, gaixoarena. Jarri ur berotan eta detergentearekin busti aurretik. Gero, ondo garbitu.

Gaixoaren hondakinak:

- Gaixoaren hondakinak eta gainontzeko zaborra zakarrontzien bidez ezabatuko dira, denak batera eta aldi berean ezabatzen saiatuz.

Gainerako etxebizitzaren garbiketa eta desinfekzioa

- Egunero garbitu maiz ukitzen diren gainazal guztiak, hala nola mahaiak, ateen tiradoreak, bainugelako osagarriak, komuna, telefonoa, ordenagailuen teklatuak, tabletak, etab.
- Gainerako etxebizitza egunero ondo aireztatzen dela ziurtatu.

1. irudia. Eskuen higiearen metodoa

